

## Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Komunikazioa, harremana eta etika

**Komunikazioa.** Pelikulak paradoxa bat kontatzen du: mundu mailan komunikazio-tresna zabalduenetakoa den Facebook-en sortzaileak muga serioak azaltzen ditu bere trebetasun sozial propioak zabaltzerako orduan.

**Harremana.** Istorioak, alde batetik, ustez benetako lagunarengandik traizionatua sentitzen den pertsona baten lagunarteko desengainua erakusten du. Eta bestetik, dirua tartean dagoenean, harreman pertsonalen oinarriak zalantzan jartzen ditu.

**Ética.** Pelikulak pertsona bakoitzaren erabakia mahaigaineratzen du bere dohainak erabiltzerako orduan: irizpide etikoak jarraituz bidera daitezke edo ez.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Zenbait galdera...

### ...pelikula ikusi aurretik

- Laguntasunari buruz: Laguntasunak guztiaren gaitetik egon behar al du? Lagunenganako leialtasunak geure bilakaera pertsonala mugatzen al digu? Nola?
- Komunikazioari buruz: Aurrerapen teknologikoen harreman pertsonalak deshumanizatzen dituzte? Erraztu egiten dituzte? Zergatik?
- Etikari buruz: Geure bizitza eraikitzen dituzten balio unibertsalak al daude? ¿Zeintzuk? Geure bizikidetzarako onartzen al ditugu balio horiek?

### ...pelikula ikusi ondoren

- Zer bilatzen du Markek Facebook sortzerakoan? Zer da Facebook berarentzat?
- «Itzaletik zeure ergelkeri iraingarriak idazten dituzu hori delako gaur egun gauzak gaizki irititzen zaizkien pertsonen egiten dutena...» Érikaren hitz hauek zer iradokitzen dizute?
- Zer gertatzen da Eduardoren eta Seanen artean? Beraien artean lehiarik ba al dago? Zergatik?
- Zergatik egiten dio iruzur Markek Eduardori? Damutzen al da egin duenaz?

Jon Auzmendiren laguntzarekin.

## La red social

### Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: The Social Network.

URTEA: 2010.

IRAUPENA: 115 min.

HERRIALDEA: AEB.

ZUZENDARIA: David Fincher.

AKTORE-ZERRENDA: Jesse Eisenberg, Andrew Garfield, Justin Timberlake, Armie Hammer, Joseph Mazzello, Max Minghella, Rashida Jones.


EKOIZPEN-ETXEA: Sony Pictures/ Michael De Luca Productions/ Scott Rudin Productions/ Trigger Street Productions.

### Sinopsia

Mozkorraldi-gau baten ondoren, Mark Zuckerbergek Iparamerikako Unibertsitateetako ikasleen arteko komunikazio sistema berri baterako eredua diseinatzen du, Facebook. Bere asmakizunaren aukerez jabetuz, lagun eta kide batzuk biltzen ditu modu enpresarialean garatzeko eta ahalik eta errentagarritasun ekonomiko handiena ateratzeko. Prozesu horretan berarengan konfiantza duten pertsona guztiei traizio egiten die baina historiako aberats gazteena bihurtzea eta geure komunikatzeko modua betirako aldatzea lortzen du.

Cine para **vivir y convivir**

## La red social



**baketik** arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikia

Centro por la paz  
Elaboración ética  
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Gatazken eta Gatazken Erantzarako  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Juventud y Acción  
Comunitaria

**baketik** arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikia

Centro por la paz  
Elaboración ética  
de conflictos

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)